



ABENDUAK 3

Euskararen Eguna

**EUSKARA
BIZITZA DUINERAKO**

Kalean zein lanean, askatasunean

ABENDUAK 3

Euskararen Eguna

LAB sindikatuak 2000. urtean erabaki genuen LAN eta KOMUNIKAZIO hizkuntza euskara izango genuela. Erabaki horren aurretik euskararen normalizazioan lan handia egin genuen, eta ondoren, EUSLAB egitasmo estrategikoa jarri genuen martxan sindikatu barruko jardueran, zein lan munduan euskararen erabilera areagotzekoasmoz. Ez gara berriak beraz.

Ezin ukatu pandemiak gure bizitzak astindu dituela eta hausnarketarako gako batzuk ere utzi dituela, horregatik, indarrean dauden hizkuntza politikak berrikusi, birpentsatu eta eragiteko jauziak behar direla ondorioztatu dugu. Alde batetik, Euskalgintzaren Kontseiluak abiatutako hizkuntza-politiketan eragiteko Batuz Aldatu ekimenarekin bat egin dugu.

Bestetik, iazko urtearen amaieran, pandemiaren krisi betean, eremu sozioekonomikoaren euskalduntzean dugun erronkari ahalik eta modu bateratuenean aurre egiteko urrats berri bat eman genuen. Euskarak lan munduan behar duen besteko ikuspegia eta konpromisoa hartuz, Euskalgintzaren Kontseiluak, LABek eta ELAk, eremu sozioekonomikoa euskalduntzeko proposamen zehatza aurkeztu genuen: berrogeita hamar langiletik gorako enpresetan euskara-planak negoziatu beharra lanbide arteko akordioan jasotzea.

Nafarroan ere, ez dira gutxi izan euskaldunen eskubideen alde eta politika aldaketa eskatuz egin izan diren mobilizazioak.

Sindikalismotik eta daukagun ardura soziopolitikoari uko egin gabe jardun dugu euskararen gaiarekin, bai kanpora begira, arestian aipatu direnetan aktiboki parte hartuz, baina baita, barrura begira ere. Sindikatuari berari begira, alegia.

Sindikatu barruan zein lan munduan hizkuntzarekin ditugun inertziak astindu nahi ditugu eta barruko prozesuetan euskararen erabilera areagotzeko ahalegin kolektiboa egin dugu, LABen euskara lan hizkuntza izatea lortuz eta gure hizkuntza politikaren berritzean pausoak emanez.

Ugari dira euskarak datozen urteetan aurrez aurre dituen erronkak, eta LAB sindikatuari ere badagokio horri ganoraz erantzutea. Prest gaude, eta dagokigun mailan erantzutea espero dugu. Langileon hizkuntza eskubideen aitortza ezinbestekoa izango da, eta baita bidelagunen ahalduntzea ere.

Horregatik, LABek euskararen aldeko borrokan berretsi eta euskararen egunari lotuta egongo diren mobilizazio guztietan parte hartzeko dei egiten du.

Bereziki Euskal Herrian Euskarazek Euskararen errepublika lelopean datorren abenduaren 6an Durangon deitu duen nazio manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen dugu.

Guk kalean zein lanean euskaraz, askatasunean.

LAB SINDIKATUA. 2021ko abenduaren 3a

**EUSKARA
BIZITZA DUINERAKO**

Kalean zein lanean, askatasunean

laneus
langileok **aldaketa** euskaraz
kalean zein **lanean**, askatasunean

